



Marta Revuelta
Aixerrota BHI, 13-14

AURKIBIDEA

Fernando Morillo 2

Sarrera 2

Zure arimaren truke

Kokapena 3

Gaia 3

Argumentua 3

Istoria 4

Egituraketa 5

Pertsonaiak 6

Baliabideak 7

Iritzia 8

Bibliografia / Webgrafia 10

Fernando Morillo

Fernando Morillo Grande Azpeitian (Gipuzkoa) 1974an jaio zen euskal idazlea da. Fisika eta filosofia ikasketak egin zituen, baina gaztetatik literaturaren bideari ekin zion. Gazte literatura landu du gehienbat eta hainbat sari irabazi ditu genero horretan. Bere eleberriak ohikoak dira ikastetxeko irakurgai moduan.



2011. urtean *Gaumin* argitaletxea sortu zuen, batik bat haur eta gazte literatura bultzatzeko asmoz. Ikastetxeak eta euskaltegiak bisitatu eta irakurleekin topaketak gogoko dituen idazlea ere bada. Hauek dira bere nobelarik ezagunenak: *Ortzadarra sutan* (2002, Elkar-Igartza Sariaren irabazlea); *Gloria Mundi* (2004, Elkar); *Suminaren estrategia* (2008, Elkar); *Zure arimaren truke* (2008, Txalaparta); *Bilbo samurai* (2010, Txalaparta).

Sarrera

Eleberri hau 2008an idatzi zuen Fernando Morillok. Bertan, gaur egun gure bizitzetan geroz eta gertuago dugun gai bat tratatzen du: minbizia. Gaixoak horren aurrean nola jokatzten duten eta haren ingurukoek gaixotasunari aurre egiteko saiakerak nora ailega daitezken azaltzen da orri hauetan. Gainera, narratzailea lehenengo pertsonakoa da, eta horrek are gehiago laguntzen digu haren sentimenduak ulertzen. Zientziaz tindatutako liburua da, poesia, mitologia eta hizkuntza bera tartekatzen dituena.

Zure arimaren truke

Kokapena

Obra hau garaikidea da, hau da, gaur eguneko bizimoduaren errepresentazioa da. Alde batetik minbizia bezalako gaixotasunek mende honetan izaten ari diren presentzia dela eta; eta beste alde batetik, zientziak eguneroko bizitzan lortu duen garapenagatik. Hala ere, istorioaren parte handi bat antzinako filosofian eta filosofia modernoan, mitologian, hizkuntzan, hitzetan, hainbat sinesmen edo teorietan, eta era guztietako ikerkuntza zientifiko edo ez zientifikoetan oinarritzen da. Horregatik esan dezakegu garai desberdinetako kontuez dagoela eraikita *Zure arimaren truke*.

Gaia

Hasiera batean minbizia gai nagusia dela dirudi. Baina irakurri ahala konturatzen gara idazleak minbiziaren gaia aitzakiatzat hartuz, gaixotasun horrengandik gure burua edo maite dugunarena salbatzearen norainoko erokeriak egitera hel gaitzekin adierazi nahi du. Ezbai batean aurkitzen da protagonista, maitale gaixoaren ondoan egon bere azkeneko hilabeteak harekin pasatzen, edota ikerkuntza lanetan hasi bete maitea salbatzeko, baina harengandik aldenduz.

Argumentua

Bernaten neska lagunari, Iruriri, minbizia diagnostikatu diote, *Glioblastoma formaniztuna*, hain zuzen ere. Oso aurreratua dago eta zaila da kentzea, litekeena da urte bat baino gehiago ez bizitzea. Larrialdi horren aurrean Bernatek ez daki zer egin: bere ondoan pasatu bere bizitzako azkeneko hilabeteak edo, bera ikerlaria eta zientzialaria izanik, Iruri salbatzeko zer edo zer asmatu baina bere ondotik aldendu. Azkenean ikertzea erabakitzen du. Hala ere, denbora aurrera doa eta ez du ondorio onik lortzen. Bitartean, Irurik gaixoen bost faseak pasatzen ari da –ukazioa, sumina, negoziazioa, depresioa eta onarpena– eta geroz eta okerrago dabil.

Istoria

Bernat fisikaria eta informatikoa da, laborategi bat du eta ikertzea maite du. Bere neska lagunarekin, Irurirekin, bizi da. Bera abokatua da eta bere lana maite du. Egun batean buruko min handiekin hasten da eta medikuarenera joatea erabakitzen du, badaezpada. Egun batzuk geroago minbizia diagnostikatzen diote, eta gaixotasun hori dutenen artean %90 urte bat baino gehiago bizitzera ez direla heltzen esaten diote.

Orduan Bernat, zientzialaria izanik, ez bai batean hasten da. Irurik berarekin egotea nahi du, baina bera ezin da ezer egin gabe gelditu, eta bere laborategiko kideei lan guztiak bertan behera uzteko eta minbiziari buruz ikertzen hastea eskatzen die. Badaki horrela Irurirengandik aldentuko dela, baina berak itxaropenak ditu oraindik. Egunak pasa ahala informazioaren bila hasten dira bera eta bere kideek eta ez dute baliagarria zaien ezer aurkitzen. Iruri bitartean bakarrik sentitzen denez, Bernat haren mutil ohiari, Kikeri, deitzen dio eta zera eskatzen dio: aste bateko bidaiatxo bat egin dezatela, entreteni dezala. Horrela Bernatek denbora gehiago lortzen du.

Egun batean Dopaminari buruzko txosten bat irakurtzen du, non ereduak aurkitzeko gaitasuna areagotzen duela esaten den. Orduan bururatzen zaio hartzea, minbiziari buruzko ikerketan lagungarria izango delakoan. Dopaminak oso azkar egiten du efektua Bernatengan. Hasieran dosi txikiak hartzen ditu baina egunak pasa ahala dosiak handitzen ditu. Alde batetik lehen argi zituen gauza asko zalantzan jartzen ditu, baina beste alde batetik, inoiz imajinatuko ez lituzkeen gauzak bururatzen zaizkio, eta liluraturik dago. Mareni, haren kideetako bati, eskatzen dio laguntzeko eta behar den momentuan, bere burua kontrolatu ezean, berak egin dezala eta horrekin buka dezala. Marenek onartzen du. Egunak pasa ahala literatura, filosofia, zientzia, medikuntza eta biologiako liburuak irentsi egiten ditu, informazio bila.

Iruri bere “oporretatik” bueltatzen denean oso azkar pasatzen da denbora. Gaixoen bost faseetatik laugarrenera, hau da, depresiora, doa zuzenean. Zorionez, Bernatek haren kideen laguntzaz eta Dopaminaren laguntzaz, nerbio sistemak aztertzeko makina bat lortzen du eta zenbait izakiri musika mota desberdinak jarriz haien nerbio sistema zer nolako portaera izaten duten aztertzen hasten dira. Soinuak aztertu bitartean soinuen taula periodiko bat betetzen doaz. Bat-batean soinu oso berezi

batekin egiten dute topo. Informazio bila hasi eta hitzaren garrantziaz ohartzen da Bernat, orduan erabakitzen du soinua eta hitza nahastea eta sagutxo batzuekin proba egiten du. Konturatzen da soinua konkretu bat eta hitz konkretu bat konbinatuz animaliak “hipnotizatu” ditzakeela.

Denbora aurrera doa eta Iruri geroz eta okerrago dago. Bernat inoiz baino gehiago aldendu da harengandik, baina haren harrotasuna handiegia da ikerkuntza bertan behera usteko. Argi dauka Iruri salbatzeko gai dela.

Iruri ospitalean ingresatzen dute. Bernat bere helburua lortzear dago. Proba gehiago egin behar ditu, zenbait akurietan lehenengo, eta pertsonetan gero. Ordu batzuen buruan gaixoturik dauden sagu batzuk salbatzea lortzen du. Baina konturatzen da, sagu bat salbatzean metro batzuetara dauden beste batzuk hiltzen direla, hau da, prozesua itzulgarria dela.

Azkenean, bere metodoa baliagarria dela ikusten duenean ospitalerantz abiatzen da. Iruriri ordu gutxi batzuk gelditzen zaizkio. Haren logelan sartu eta lo sakonean sartzeko eskatzen dio. Iruri berehala sartzeko. Bere helburua Iruri salbatzea da, baina komak hilabete batzuk emango dizkio norbait bilatzeko, norbaiten arima lortzeko eta Iruriren gorputzean sartzeko, hau da, saguekin egindako gauza bera Irurirekin egiteko.

Egituraketa

Nobela hau guztira 44 kapitulutan eraikita dago. Narratzaile bakarra dago: Bernat, lehenengo pertsonan eta lehenaldian aritzen dena. Bera da protagonista nagusia, ekintza guztiak haren inguruan gertatzen baitira. Aipagarria da obra izatez Bernatek idatzitako liburu bat irudikatzen dutela.

Denborari dagokionez, gertaera nagusiak egitura lineal bat jarraitzen du, hau da, denborak aurrera egin ahala, istorioak aurrera egiten du.

Pertsonaiak

- **Bernat**

Fisikaria eta informatikoa da. Ikertzea maite du, baina are gehiago bere maitea, Iruri. Honi bere gaixotasuna diagnostikatzean, bera salbatzearen edozer gauza egingo luke eta bere laborategian bere kideen laguntzaz minbiziari buruzko ikerketa bati ekiten dio buru belarri. Ez du Iruriren gaixotasuna onartu nahi eta itxaropenak ditu bere etorkizunari begira. Edozer gauza egin nahi du eta Dopamina sartzen hasten da, nerbio sistema suspertzen duelakoan dago eta. Horri ezker zenbait aurrerapen lortuko ditu. Bere maitearengatik zorigaiztokoa sentitzen den arren ez du etsi nahi eta adoretu egoten da sarri, nahiz eta adore hori azkenean harrotasun bihurtu.

- **Iruri**

Bernaten neska laguna da. Minbizia diagnostikatu diote eta urte bat baino gehiago biziko ez duela daki. Berak Bernat bere ondoan egon dadin nahi du, baina honek bere ikerketetan orduak eta orduak sartzen dituenez bakarrik eta beldurtuta sentitzen da. Hasieran ez du gertatzen zaiona onartu nahi, eta bere ohiko bizitza egiten jarraitu nahi du. Hala ere, egunak pasatu ahala, okerrera doa eta pentsamendua aldatzen du. Gaixoaren bost faseak pasatzen ditu: ukaziotik suminera, non munduarekin haserretzen da gertatzen ari zaiona dela eta. Gero negoziazioa dator, non Gabonetara arte bizitzearekin konformatzen den. Horren ondoren depresioa, eta, azkenik onarpena ailegatzen da. Azkeneko fase honetan bere bukaera heltzeko prest sentitzen da. Nobela osoan hau da pentsamendu desberdin gehien dituen pertsonaia: beldurra, mina, amorrua, gorrotoa, tristura, poza, haserrea, etab.

- **Kike**

Iruriren ohiko mutila da. Erakargarria, zintzoa, noblea eta ederra da, modelo baten antza du. Bat-batean dena utzi eta apaiz izateko ikasketak egitera joan zen. Nahiz eta Iruri Bernatekin maiteminduta egon, beti izango du Kike bere bihotzean. Oso lagun onak dira. Bernatekin hasieran ez da nahiko ondo konpontzen, baina Iruriren gaixotasuna dela-eta harengatik ahalegin txiki bat egiten dute eta ondo konpontzen saiatzen dira. Ondorioz, zalantza espiritualak hurbilduko dizkio Bernati.

- **Maren**

Bernaten lankidea izateaz aparte honen lagun ona da. Erakargarria, burutsua eta adimendua da. Beti egongo da Bernat laguntzeko prest eta asko arduratzen da beragatik. Bernat nahiz eta Iruri izugarri maite duen, badaki harekin egongo ez balitz, Marenekin egoten saiatuko litzatekeela. Hala ere, lagun modura ikusten du eta asko eskertzen dio harengatik egite duen guztia.

- **Jokin**

Bernaten lagun zaharra da, harekin ikasi zuen fakultatean. Asko bidaiatu du, ez da leku berean egotekoa edo ikastekoa. Irakaslea izan zen Kaliforniako Institutu Teknologikoan eta ikerlaria Berlingo Max Planck Institutuan. Nahiz eta istorioan zehar garrantzi handirik ez izan, berari esker lortzen du Bernatek bere laborategia eraikitzeko dirua.

Baliabideak

Kontaktari dagokionez deskribapenak ugariak dira, mota askotarikoak agertzen dira: zientifikoak, sentimendu eta pentsamenduenak, paisaienak edota sendagaienak. Elkarrizketak ere badaude, baina ez prosa beste.

Narratzailea, lehen esan bezala, bakarra dago eta lehenengo pertsonan aritzen da, lehenaldian.

Metaliteratura aipagarria da nobela honetan, hau da, literaturaz hitz egiten duen literatura. Adibidez: *Werther* nobela aipatzen duenean, *Wolfgang Goethena* (104. or.); edota *Robert Gravesen Jainkosa Zuria* poesia liburua (147. or.).

Liburu hau munduko zientzialari, autore eta pentsalarien teorien eta aipamenen gordelekua da. Ia kapitulu guztietan aurki dezakegu honen frogak. Adibidez: Einstein, Gauss matematikalaria, Aristoteles, Platon, Leonardo Da Vinci, Jorge Oteiza, Madame Curie, Anaxagoras, Charles Darwin, eta abar (ezinezkoa zaigu guztiak aipatzea).

Adibidez, Platonen aipamen hau aurki daiteke: "*Entrenamendu musikala beste zeinahi entrenamendu ... arima zuzen hezten den horri*" (105. or.); eta Leonardo Da Vinciren honako hau : "*Plazerik handiena ulertzearen poza da*" (21. or.). Idazleak, benetan azaldu nahi izan dizkigu teoria eta

pentsamendu hauek, idazleok jakin dezagun benetako ikerkuntza bati ekin diola, benetako datuetan oinarrituz.

Metaforaren bat edo beste ere aurki daiteke: “*Nire itsasontziko mastatik ez nuen lurra ikusten. Baina bai usaintzen*”. (156)

Leku nabarmen bakarra “Getxoko Aixerroto pasealekua” da. Gainerako lekuak arruntak dira (etxea, laborategia, ospitalea).

Azkenik, esan dezakegu pasarte txiki batzuk ez direla oso ondo ulertzen, ez dutelako koherentzia gehiegirik. Horretaz baliatu da idazlea, irakurleoi Bernaten erotasuna transmititzeko eta haren pentsamenduak ondo uler ditzagun.

Iritzia

Zure arimaren truke nobela oso aberatsa da hainbat aspekturi begira.

Hasteko, gaur egun gure bizitza arruntean geroz eta gertuago dugun gai bat tratatzen du: minbizia. Mende honen hasieratik aurrera, gero eta jende gehiago sufritu eta sufritzen ari den eritasuna da hau, eta nobela honek horretaz ohartarazten digu. Batzuei hau irakurtzeak lagundu digu konturatzera edonori gerta dakiokela horrelako zerbait eta, agian gehiegi esatea da, baina gure bizitza aintzagotzat hartu beharko genukeela pentsatzera eraman gaitzake. Horregatik istorio hunkigarria da oso. Mundu errealean pasatzen ari den gauza bat delako eta errealismoz beterik dagoelako, alegia.

Liburu honetan hizkuntzari dagokionez, zailtasun bakarra hitz tekniko gehiegi erabiltzen direla da. Baina horretaz aparte, euskara nahiko ulergarri batean dago idatzita, hortaz, irakurtzeko erraza egiten zaigu. Hala ere, badaude pasarte batzuk, koherentzia askorik ez dutenak. Hori idazleak erabili duen baliabide bat da, eta istorioa aurrera joan ahala, protagonista nola erotzen den ikusteko baliagarria egiten zaigu. Beraz pasarte horiek Bernaten erotasun maila neurtzeko balio dute, besterik ez.

Idazlearen jakinduria begi bistakoa da. Izan ere, eduki aldetik testu konplexuak dira nagusi. Ezagutza maila handia erakusten digu Fernando Morillok filosofia, historia, fisika, medikuntza eta biologiako arloetan. Garrantzitsua da kontuan izatea, Morillok obra hau idazteko, benetako

ikerkuntza bati ekin ziola. Agertzen diren datu eta teoria guztiak benetakoak dira. Horrek idazlearen aldetik lan handia suposatzen du, izan ere liburua idazteaz aparte izugarrizko informazio eta datu bilketa egin behar izan du. Honek guztiak ukitu intelektuala ematen dio obrari. Hala ere batzuetan astunegia egiten zaigu hainbeste informazio irakurtzeak.

Era berean, aipagarria da, lehen esan bezala, meta-literaturaren agerpena. Ez da gehiegi aurkitzen baina behin edo behin literatur lan bat edo beste aipatzen dira. Horrek literatura aldetik oraindik ere aberastasun gehiago ematen dio eleberriari.

Azkenik, istorioaren amaierari buruz esan beharra dago ustekabeen hartzen gaituela. Ez dugu inolaz ere horrelako bukaerarik espero. Logikoa da pentsatzea Iruri hil egingo dela eta Bernatek ez duela ezer lortuko. Baina azkenean lortzen duela jakitea ez da gehien harritzen gaituena. Baizik eta azkeneko kapitulua guri eskainia dagoela ikustea. Konturatzen gara narratzaileak liburu hau idatzi duela helburu batekin, gure arimak lortzearen helburuarekin. Idazleak, modura batean, istorioaren parte bihurtzen gaitu eta hori oso efektu interesgarria da. Tonu bihurri bat ematen dio.

Laburbilduz, lan oso aberatsa da bai ezagutza, bai hizkuntza eta bai eduki aldetik. Baliabide bitxiak erabili ditu idazleak gure arreta lortzeko. Orokorrean, oso liburu burutsua da, bereziki azkeneko partea. Ezusteko amaiera lortu du Fernando Morillok, oso gutxitan erabilia izan den taktika horri esker.

Bibliografia-Webgrafia

Zure arimaren truke, Fernando Morillo. Txalaparta.

http://eu.wikipedia.org/wiki/Fernando_Morillo

http://www.fernandomorillo.eu/Liburu_Zure_arimaren_truke_lruzkina.html

<https://sites.google.com/site/euskaljakintza/narratzailea>

http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>

<http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/zure-arimaren-truke/zure-arimaren-truke.pdf>